**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
IRTEERA - SALIDA
2020 EKA. JUN. 04
ZK. / N.º 2990

**Jakin dezazun eta bidezko ondorioak izan ditzan, Diputatuen Kontseiluak 2020/06/02ko bileran honako erabakia hartu duela adierazten dizut:**

"Diputatuen Kontseiluaren 2020ko otsailaren 18ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren; erabaki horren bidez, laguntza horien 2020ko deialdia ere onartu zen.

Dena dela, COVID-19 izeneko gaixotasunaren zabalkuntza dela eta sortutako osasun krisialdi larria ikusirik, Espainiako gobernuak ezarritako alarma egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoak jasandako paralisia gure ekonomiako sektore guztiei eragiten ari zaie, ondorio bikoitzarekin: alde batetik, jaitsiera nabarmena Foru Aldundiak aurreikusitako diru sarreren bilketan, eta bestetik, gastu behar berriak edo sortutako egoeragatik bereziki kaltetutako sektoreetan zeuden beharrak handitzea.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat jo da aipatutako deialdirako aurreikusitako baliabideak lehentasunezkotzat jotako beste behar batzuetara bideratzea. Horren ondorioz, Diputatuen Kontseiluaren 2020ko apirilaren 28ko erabakiaren bidez indarrik gabe utzi da Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia.

Horrela, oro har ulerturik inbertsio horiek atzeratu daitezkeela eta beste behar batzuk lehentasunekotzat jo daitezkeela, kontuan hartu behar da horrelako jarduerak burutzea ezinbestekoa egiten duten ezohiko egoerak gerta daitezkeela.

Hain zuzen ere, Foru Aldundi honek Zaldibiko Udalaren laguntza ekonomiko baten eskaera jaso du, udalerriko bide batzuetan izandako kalteei aurre egin ahal izateko, aurtengo apirilaren 24an izandako euri jasak eragin baitzituen.

**Para su conocimiento y efectos, le participo que el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 02/06/2020, ha adoptado el siguiente acuerdo:**

"Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 18 de febrero de 2020 se aprobaron las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobándose mediante ese mismo acuerdo la convocatoria de 2020 de dichas ayudas.

Sin embargo, la posterior declaración por el gobierno de España del estado de Alarma en todo el territorio nacional, con motivo de la grave crisis sanitaria generada por la expansión de la enfermedad denominada COVID-19, ha provocado una rápida parálisis de la actividad económica que está afectando a todos los sectores de nuestra economía, con la doble consecuencia de una brusca caída en la recaudación de los ingresos presupuestados por esta Diputación Foral, así como la aparición de nuevas necesidades de gasto o el incremento de las mismas en determinados sectores especialmente afectados por la situación generada.

En dicho contexto, se ha considerado necesario reorientar los recursos previstos para la convocatoria citada hacia otras necesidades que se estimen preferentes, lo que ha motivado que, por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 28 de abril de 2020, se haya dejado sin efecto la convocatoria 2020 de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Entendiendo así que, con carácter general, dichas inversiones pueden posponerse y que la atención de otras necesidades ha de considerarse preferente, ha de tenerse en cuenta la posible concurrencia de circunstancias extraordinarias que hagan ineludible la realización de ese tipo de actuaciones.

En ese sentido, se ha recibido en esta Diputación Foral una solicitud de ayuda económica del Ayuntamiento de Zaldibia para paliar los daños sufridos en varios de los caminos rurales del municipio como consecuencia de la tromba de agua sufrida el 24 de abril del presente año.

JAKI6948ba03-c4ed-4944-aa0a-24e6d5249a92

Beharrezko eta larrialdiko obra izanik, eta ikusita aipatutako udalak egin beharko dituen ezohiko gastuak hori gauzatzeko (Arru, Zubialde, Aierdi, Alotzpe eta Arkako bideei dagozkionak, 43.951,74 eurotan aurreikusitakoak, BEZ-a barne) bidezkoa da kalte horiek konpontzeko 32.963,80 euro ematea, aipatutako gastuen ezohiko izaerak laguntza zuzenean ematea justifikatzen dutela ulertuz, araudi honen babesean: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 20.3.c) ("*Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira: c) Salbuespen gisa, arrazoi publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioengatik ematen direnak, edo behar bezala frogatuta egonik deialdi publikoa egitea eragozten duten bestelakoak*") eta 27.1 artikuluak, eta horren Erregelamenduaren 43.3 artikulua (24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 29koa). Aipatutako araudiaren ondorioetarako, dirulaguntza berezia da. Araudi horren aplikazioari buruz, adierazi behar da, era berean, Foru Aldundi honek daukan informazioaren arabera, aipatutako eguneko euri jasak eragindako kalteak puntualak eta geografikoki mugatuak izan zirela, ez baita egiaztatu lurraldeko beste landa bideetan eragin orokor bat, laguntza deialdi bat onartzea eta, ondorioz, laguntzak lehia bidez banatzea eskatuko lukeena, hain zuzen ere.

Siendo una obra necesaria y urgente, y a la vista de los gastos extraordinarios que habrá de afrontar el citado ayuntamiento para su ejecución (correspondientes a los caminos Arru, Zubialde, Aierdi, Alotzpe y Arkaka, con un presupuesto de 43.951,74 euros, IVA incluido), se considera oportuno conceder la cantidad de 32.963,80 euros, a fin de colaborar en la financiación de los daños sufridos, entendiendo que el carácter extraordinario de los gastos justifica la concesión directa de una subvención por el citado importe, al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.3.c) ("*Podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones: c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública*") y 27.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el artículo 43.3 de su Reglamento (Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril). A efectos de la aplicación de dicha normativa, procede asimismo señalar que, por la información de que dispone esta Diputación Foral, los daños causados por las lluvias del día señalado tuvieron carácter puntual y geográficamente limitado, sin que se haya constatado una afección generalizada en otros caminos rurales del territorio que hicieran oportuna la aprobación de una convocatoria de ayudas con la consiguiente concurrencia en el acceso a las mismas.

Diputatuen Kontseilu honen eskumena izanik dirulaguntza ematea, ordaintzeko agindua Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko dagokion organoak eman beharko du, egindako gastuak justifikatzen direnean.

Correspondiendo a este Consejo de Gobierno Foral la competencia para la concesión de la subvención, el abono de la misma habrá de efectuarse por el órgano competente del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, una vez se justifiquen los gastos realizados.

Horri dagokionez, entitateak egiaztatu du betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritakoak.

A estos efectos, la entidad ha acreditado que cumple con los requisitos que para la obtención de subvenciones se establecen en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago dirulaguntza hau.

Esta subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren, honako hau

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

JAKI6948ba03-c4ed-4944-aa0a-24e6d5249a92

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengo**.- Ematea zuzenenean 32.963,80 euroko dirulaguntza Zaldibiko Udalari, aurtengo apirilaren 24an udalerri horretan izandako euri jasak Arru, Zubialde, Aierdi, Alotzpe y Arkaka bideetan eragindako gastuak zati batean finantzatzeko.

Dirulaguntza bateragarria da helburu bereko beste edozein subentzio, laguntza, sarrera edo baliabiderekin. Dirulaguntzaren guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaindituko, ez banaka ez beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**Bigarren**.- Baimentzea eta entitate onuradunaren alde xedatzea 32.963,80 euroko gastu bat, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, aurrekontuko 1.0240.400.761.01.05.2020 kontu sailaren kargura.

**Hirugarren.-** Dirulaguntza gastua burutu ondoren ordainduko da, dagokion dokumentazioa jaso eta konprobatu ondoren: ziurtagiriak (eta, kasua bada, ordainagiriak), egindako jardueraren memoria deskribatzailea eta hori finantzatu duten beste sarrera edota dirulaguntzak. Entitateak justifikazio hori aurkezteko gehienezko epea 2020ko urriaren 31 ezartzen da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gastua egindakotzat eta lagungarritzat jo ahal izango da, nahiz eta ordainduta ez egon, baina kasu horretan entitateak ordainketa hori egin duela egiaztatu beharko du laguntza kobratu ondorengo 30 egunetan.

**Laugarren**.- Dirulaguntzaren onuradunak bete beharko ditu martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 13. artikuluan adierazten dituen obligazioak.

**Bosgarren**.- Erabaki honetan jasotako dirulaguntza ez da estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko

**ACUERDA**

**Primero**.- Conceder de manera directa al Ayuntamiento de Zaldibia una subvención por importe de 32.963,80 euros, para la financiación parcial de los gastos ocasionados en varios caminos (Arru, Zubialde, Aierdi, Alotzpe y Arkaka) por la tromba de agua sufrida en dicho municipio el 24 de abril del presente año.

Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, sin que el importe de la misma, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**Segundo**.- Autorizar y disponer a favor de la entidad beneficiaria el gasto correspondiente a la citada subvención (32.963,80 €), con cargo a la partida presupuestaria 1.0240.400.761.01.05.2020.

**Tercero**.- La subvención se abonará tras la ejecución del gasto, una vez recibidas y comprobadas las certificaciones (y, en su caso, los justificantes de pago correspondientes), junto con una memoria descriptiva de la actuación realizada y el detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la misma. Se establece el 31 de octubre de 2020 como plazo máximo para la presentación por la entidad de dicha justificación.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 30.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se admitirá como realizado y subvencionable el gasto aun cuando no hubiera sido efectivamente pagado, si bien en este caso la entidad habrá de acreditar la realización de dicho pago en un plazo máximo de 30 días desde la fecha de cobro de la subvención.

**Cuarto**.- La entidad beneficiaria de la subvención deberá cumplir cuantas obligaciones se señalan en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**Quinto**.- La subvención recogida en el presente acuerdo no constituye ayuda estatal en los términos establecidos en el artículo 107 del

JAKI6948ba03-c4ed-4944-aa0a-24e6d5249a92

Itunaren 107. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**Seigarren**.- Erabaki honetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek xedatutakoa beteko da: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak; eta horren Erregelamenduak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartuak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean. Bide hori erabili aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita HILABETEKO epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke."

Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

**Sexto**.- Además de lo previsto en el presente acuerdo, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía las personas particulares podrán interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de UN MES desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno."

Donostia / San Sebastián, 2020ko ekainaren 3a / 3 de junio de 2020

IDAZKARI TEKNIKOAK / EL SECRETARIO TÉCNICO,

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

Izptua./Fdo.: Segundo Díez Molinero.

ZALDIBIKO UDALA.-

Egiaztapen Kode Segurua: JAKI6948ba03-c4ed-4944-aa0a-24e6d5249a92
*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:* https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks